

Azokak eta irakurraldiak gaur, Liburuaren Egunean

Bilboko eta Donostiako azoketan liburu argitaratu berriak sinatzen ariko dira hainbat idazle

A. Oiartzabal - A. Barandiaran.

William Shakespeare eta Miguel de Cervantes hil ziren egunean baino urte dezente geroago jaio zen Liburuaren Nazioarteko Eguna apirilaren 23an. Unescok bataiatu zuen gaurko eguna Liburuaren Eguna, gaztetxoek artean irakurketa sustatzeko asmoarekin. Baina gaztetxoentzat ez ezik, helduentzat ere badira egunaren kariatara antolatu diren ekitaldiak.

Hego Euskal Herrian hainbat hiri eta herritan antolatu dituzte liburu azokak. Hirietako liburu dende berritasunekin eta titulu zaharrek betetako erakusmahaiak paratuko dituzte; Bilbon, ohikoa salneurria baino %10 merkeago. Hiriko udal liburategiek, berriz, zinemari eta literaturari buruzko gida bat oparituko dute.

Getxoko hainbat liburu dende ere beren liburuak kalean jarriko dituzte. Horrez gain, Kirmen Uribe poetak eta Mikel Urdangarin kantariak Internet Kafe olerki eta musika ikuskizuna egingo dute azokan.

Donostian, Gipuzkoa plazan eta hango arkupeetan aterpetuko dituzte liburuak eta horien egileak. Guztira, 15 erakusmahai jarriko dituzte, eta, besteak beste, Uxue Alberdi eta Pablo Muñoz idazleak ariko dira euren azken liburuak sinatzen. Aurten, gainera, ONCE elkarteak hartuko du parte eta braille sisteman idatzitako liburuen zatiak irakurriko dituzte. Estibaliz Etxebeste eta Beatriz Egizabal ipuin kontalariek, berriz, haurrentzako zein helduentzako ipuinak kontatuko dituzte.

Bestalde, iluntzeko 19:30etik aurrera, Ernest Lluch kultur etxean, Pako Aristiren Josu Dukatiren proposamena antzezlanaren irakurketa dramatizatua egingo dute Ane Gabarain, Kandido Uranga eta Patxi Santamaria aktoreek.

Gasteizko Artium Arte Garaikidearen Zentroan, berriz, hainbat manifestu artistikoen irakurraldi publikoa egingo dute Liburuaren Egunaren kariatara. Besteak beste, Futurismoaren, Surrealismoaren, Euskal Eskolaren eta beste hainbat mugimendu artistikoren manifestuak irakurriko dituzte goizean zein arratsaldean. Nahi duen orok har dezake parte irakurraldian, betiere aurrez eskaera eginez gero.

Aingeru Epaltzaren literatura

Ibon Egaña literatur kritikari eta EHUKo irakasleak Aingeru Epaltzaren eleberrigintza izango du hizpide Iruñeko Udalak antolaturiko Aingeru Epaltzaren eleberrigintzaren koordinadak. Ibilbidea gu batentzako geografia eta denbora propioen bila hitzaldian. Hala, Sasiak ere begiak baditik lanetik hasi eta Bezperaren bezpera azken obra arteko lanaren errepasoa egingo

du. Eta, bihar goizean, Aingeru Epaltzaren lanen irakurraldia egingen dute Biurdina ikastetxean.

Berriozarko udal liburutegian, berriz, musika klasikoaren piezak eta poemak uztartuko dituzte Zulo Poetikoa izeneko ekitaldiaren bitartez. Errezitaldi poetiko hori arratsaldeko 19:00etan hasiko da, Aspaldiku elkarteak antolaturik. Oinarritzat hartuko dituzte Santi Elsoren, Ana Estepanen, Juankar Lopez-Mugartzaren, Mikel Balentziagaren eta Josu Jimenezen olerkiak.

Era berean, Euskal Herriko ikastoletan Juul hauteskunde literarioen eguna ospatuko dute, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora bitarteko ikasleek liburu eta ilustratzailerik onena aukera dezaten. Azkeneko urteetan euskaraz argitaratutako liburuak izango dira hautagaiak.

Irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko egiten diren jardueren artean egin dituzte hauteskunde horiek, eta, bozketan, 20.000 ikasle baino gehiagok parte hartuko dute.

Asnabi Nafarroako Liburuzainen Elkarteko kideek, bestalde, manifestu bat aurkeztuko dute Barañaingo eta Iruñeko liburutegietan BERRIA eta Gara egunkariak ez erosteko hartutako erabakiaren aurka. Horretarako, elkarretaratzera deitu dute Iruñeko udaletxearen aurrean, eguerdian. Lehenago, Herri liburutegiak denontzat izeneko manifestua banatuko dituzte Nafarroako parlamentarien eta Iruñeko zinegotzien artean.